

Long John

Joxean Agirre

Iragan larunbat arratsaldean eta Bilbo-ko Aste Nagusiaren barruan lau gazte ari ziren Unamuno plazan *breakdance* saio bat egiten. Gazte horietako bat hankaz gora jarri eta esku bakarraren gainean jauziak eginez erritmoa eramaten ari zen. Pentsatu nuen artista guztien oinarrian gihar bakan batzuen entrenamendu muturreraino eramandako bat dagoela, gihar bakan batzuen hipertrofia, garapen orekatu baten kaltetan burututako espezializazio neurrigabea, malformazio gisako zerbait. Artista guztien oinarrian adierazpide bakar batekiko obsesioa dagoela jarraitu nuen pentsatzen, salbu eta bertsolarien kasuan, hauek ez dakit zer bula medio edozein adierazpiderekin ausartzen baitira.

Hor dugu Jon Maiaren (Long John) kasua. Fermin Muguruza, Gari eta beste hainbaten letragile izan zen, Karidadeko Benta musika taldearen buru, bertsoa gaztetxeetara eraman zuen belaunaldi bateko kide, Albaola elkarteak bultzatuta euskal baleazaleen mundua deskubriarazi zigun itsas espedizio harrigarri hartako partaide (“Apaizac obeto” idatzi zuen). Arnaldo Otegi egin zitzaion ongiatorrian performance poetiko halako bat egin zuen eta borobila atera zitzaion. Dokumentalak egin ditu eta, diotenez, ez dauka gaizki. Nik bere azken liburua irakurri dut hasi eta jarraian eta ederra iruditu zait. Aspaldiko “Riomundo” hark ez ninduen konbentzitu. “Berriak jaio ginen” hau beste gauza bat da. Bertsolari gazte-

txo baten bizipenak biltzen ditu, 1997ko final hartan «Ama Extremadura/ aita Zamoratik/ abuela eta abuelo/ haien aurretik» bertso famatua kantatzera nola iritsi zen kontatzen du. Ez da Joyceren “portreta” famatua, oroitzapen liburuen generokoa da, baina bertsoa kultura urbano berriekin uztartu zuten bertsolari gazteen argazki moduko bat ere bada. Batzuetan, hasieran bereziki, estilo enfatikoegia duela? Beharbada bai, baina badi-tu atal bikainak ere, Gasteizko mobida alternatiboan bertsolaritzak jokatu zuen paperari buruzkoa edo erdal guneetara bertsoa eramateko Txantreatik hasi eta Errekalderaino egin ziren saiakeren ingurukoa, esaterako. Eta beste hainbat. “Berriak jaio ginen”-ek konbentzitu nau. •

Eztabaida

Xabier Izaga

Bartzelonako atentatuek udako ziraunak eta anakondak gordearazi dituzte, arnasaldi bat eman nahi izan baligute bezala. Arnasaldi samina, inondik ere. Estatuko hedabideek, edonola ere, narras jarraitu dute, ezin zantarrago, Kataluniak erakutsitako heldutasunaren aldean. Gainontzean, udak ez du ezustekorik utzi. Eztabaida politikaren mailak bere horretan segitzen du. Eztabaida saihestea da eztabaidari ekiteko modua. Besteari etengabe errespetua ez ezik autokritika ere eskatzen aritzen direnek, beren gustukoa ez den zerbait entzun orduko, prest dute purrustada. Gloria Vazquez Zarauzko zinegotziaren esaldi batek ondo laburbiltzen

ditu maila horren agerpenak. Anna Gabriel diputatu katalanak elkarrizketa batean esandakoa irakurri omen zuen Vazquezek, baina ez zuen ezer gezurtatu, zehaztu, argitu... ez zuen Gabrieleke esandakoaren kontrako ezer esan. Horretarako argudioren bat agertu beharra dago, baina Vazquezek ez du halakorik behar. Gabriel eta, bide batez, ezker abertzalearen aurka oldartu zen, ezin trauskilago, baina helburua, eztabaida saihestea, beteta: «eusko-nazi erako ile moztean ere bat datoz, hain da estua haien arteko lotura». Urkulluk ere gauza bertsua egin zuen, maltzur baina irainik gabe, irainik gabe baina maltzur, EH Bilduko ordezkariak Gipuzkoako ostalaritzako zenbait enpresaburure-

kin bildu zirenean. Badakigu Twitterrek ez duela argudiotarako tarte handirik uzten, baina bai eztabaida saihesteko adinakoa. Adibide gehiago? Urrunera gabe, joan den asteazkenean Madrilgo Kongresuan, Gobernuako presidentek bere alderdiaren ustelkeriaren gainean erantzun behar zuten. Oskar Matutek hitz egin ostean, Iñigo Alli UPNko diputatuak originaltasun ikaragarria erakutsiz bota zuen: «EH Bildu ustelkeriaz mintzatzea espainiarren adimena iraintzea da». Absurdoa EH Bilduri ustelkeria egozte eta absurdoa norberaren edo lagunaren ustelkeria ukatzeko beste batena seinatzea. Absurdoa espainiarren adimena aipatzea Parlamentu horretan, haren osaera ikusita. •